



Uharteko Udalaren
Kirol Zerbitzua

UDALAREN KIROL EGITARAUA 2018-2019 IKASTURTEA



Uharteko Udala

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

UHARTEKO UGARRANDIA
KIROL INSTALAZIOETARA ABONATU ZAITEZ

ORAIN SARRERA DOAN!

HELDUA, ERROLDATUA 0€ - (180€ AURREZKIA)
HELDUA, ERROLDATU GABEA 0€ - (230,50€ AURREZKIA)
9 hilabeteko iraunkortasuna, gutxienez

APROBETXA EZAZU AUKERA HAU!
IRAUPEN MUGATUA

+ INFO: Tel. 948 33 19 01

UDALAREN KIROL ZERBITZUAK ESKAITZEN DITUEN JARDUERETARAKO IZEN-EMATE EPEAK

EKAINAREN 1ETIK 15ERA:

- ZOZKETAN SARTZEKO IZEN-EMATEA HONAKO JARDUERETAN:
 - a) Igeriketa ikastaroak.
 - b) Gazteei eta helduei zuzendutako jarduerak.
 - c) Kirol-eskoletan eta kirol-aurreko jolasetan izena eman duten pertsona berriak.

**Martxoan matrikula berritu zuten Kirol-eskoletako ikasleek ez dute aurre-inskripziorik egin beharko.*

- IZEN-EMATE ZUZENA (EZ DAGO PLAZA MUGARIK):
 - a) Spinning
 - b) Hirugarren adinekoei zuzendutako jarduerak: >55 ariketa fisikoa eta gimnasia terapeutikoa.

**Martxoan matrikula berritu zuten hirugarren adineko (>55 ariketa fisikoa eta gimnasia terapeutikoa) ikasleek ez dute aurre-inskripziorik egin beharko.*

EKAINAREN 18AN BEHIN-BEHINEKO AURRE-INSKRIPZIOEN PUBLIKAZIOA:

Ekainaren 20ko 14:00ak arte, aurre-inskripzioetan eman diren akatsen edo omisioen zuzenketa eskatu ahal izanen da.

EKAINAREN 21EAN BEHIN-BETIKO AURRE-INSKRIPZIOEN PUBLIKAZIOA.

EKAINAREN 22AN, 10:00 ETAN, AURRETIK IZENA EMANDAKO ABONATUEN EDO/ETA ERROLDATUEN ZOZKETA EGINEN DA.

Ekainaren 22tik aurrera zozketaren emaitza webgunean kontsultatu ahal da. Kirol zerbitzuak www.huarte.es webgunean argitaratuko ditu emaitzak.

EKAINAREN 25ETIK 27RA:

Abonatuaren edo/eta Uhartean erroldatutako izen-emate zuzena, kirol eskolen jardueretan eta gazte eta helduentzako jardueretan hutsik geratu diren plazetan. (Adibidez: bigarren jarduera nahi duten pertsonak)

EKAINAREN 28AN:

Helduen eta gazteen jardueretan, igeriketa ikastaroetan eta kirol-eskoletan hutsik geratu diren plazen zozketa edo balorapena erroldatu edo/eta abonatu gabeko pertsonen artean.

IZEN-EMATE SISTEMA

- Plazak INFORMATIZATUTA dagoen AURRE-INSKRIPZIO eta ZOZKETA baten bidez emanen dira.
- AURRE-INSKRIPZIOA / IZEN-EMATEA SOILIK WEB ORRIALDE BIDEZ EGINEN DA.
- SPINNING eta HIRUGARREN ADINEKO jardueretarako, ez da aurre-inskripziorik eginen plaza kopurua mugatua delako. WEB BIDEZKO IZEN-EMATE ZUZENA eginen da.
- Hasiera batean PERTSONA BAKOITZEKO JARDUERA BAT esleituko da. Behin zozketa eginda, epe berri bat zabalduko da IZEN-EMATE ZUZENA (Web bidez) egin ahal izateko, pertsonaren batek jarduera bat baino gehiago egin nahi izatekotan hutsik geratu direnak banatzeko (ikus izen-emate epeak).
- Izen-emateak Udalaren kirol jardueretako izen-emateak arautzen dituzten ordenantzak betez eginen dira.

- AURRE-INSKRIPZIOA / IZEN-EMATEA EGINEN DA, SOILIK, WEB BIDEZ:

- * **SARTU HEMEN: www.huarte.es**
- * **SAKATU: "KIROL JARDUERETARA IZEN-EMATEA".**
- * **KONTSULTA EZAZU ESKULIBURUA: IZEN-EMATEA NOLA GAUZATU AZALTZEN DUEN GIDA XUME BAT DA, OSO ERRAZA.**
- * **ARAZOREN BAT BALDIN BADUZU, JARRI ZAITEZ HARREMANETAN UDALAREN KIROL ZERBITZUAREKIN (948 331901, deportes@huarte.es).**
- * **EMAN IZENA HORRETARAKO ZABALDUTAKO EPEAREN BARRENEAN.**
- * **IZEN-EMATEA BAIEZTATU BAINO LEHEN, ONGI IRAKURRI JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN ARAUDIA.**



AURRE-INSKRIPZIO PROZESUARI BURUZ

- Aurre-inskripzio bakoitzean **JARDUERA LEHORRETARAKO, GEHIENEZ ERE, HIRU AUKERA ETA IGERIKETA IKASTAROETARAKO BOST** markatu ahalko dira: 1. aukera, izena-eman nahi duen jarduera; 2. aukera, lehenengo aukeran plaza lortzen ez badu izena eman nahi duen jarduera; 3. aukera, aurreko aukeretan plaza lortzen ez badu izena eman nahi duen jarduera; etab.
- **EZ MARKATU IZENA-EMATEKO ASMORIK EZ DEN JARDUERARIK**, behin plaza esleituta ezin izanen baita jardueren baja eman, ez baldin bada pisuzko arrazoi batengatik eta betiere ordezkatzan duen pertsona baldin badago.
- Aurre-inskripzio aldian zehar, edozein unean eginiko aurre-inskripzioa kontsultatu, aldatu eta deuseztatu ahalko da.
- Aurre-inskripzio egiteko epea bukatu ondoren, behin behineko egindako aurre-inskripzio zerrendak argituko dira, eta balizko akatsak zuzentzeko epe bat utziko da. Ondoren, behin betiko zerrenda argitaratuko da (ezin da aldaketarik eskatu) eta zozketa eginen da aurre-inskripzioetako datuekin (lehentasunak).
- NAN ez duten adingabeek eta es abonatuak, ezin izanen dute bere aurre-inskripzioa Web bidez egin, Udalaren Kirol Zerbitzuko bulegoetan eskatu beharko dute.

ZOZKETARI BURUZ

- Zozketak programa informatiko baten bidez eginen dira, modu honetan:
 - * Zozketa egiteko erabiliko diren aurre-inskripzio zerrendak aurre-inskripzioaren arabera ordenatuko dira.
 - * Web orri baten bidez, ausazko zenbaki bat hartuko da 1go zenbakiarekin hasi eta aurre-inskripzioko azken zenbakira arte.
 - * Eskaerak prozesatzen joanen dira ausaz ateratako zenbakitik hasita eskaera-ordena zorrotz jarraituz, pertsona bakoitzak markatutako lehentasunari zorrozki kasu eginez.
- Zozketa bidez pertsona bakoitzeko jarduera bat besterik ez da esleitu.

ONARTUTAKO PERTSONEN KONTSULTA ETA ITXARON ZERRENDAREN OSAKETA

- Behin zozketa eginda, erabiltzaile bakoitzak web orrian kontsultatu ahalko du emaitza, efektu horietara ezarritako epearen barnean.
- Kiroletako jarduera bakoitzeko itxaron zerrendak osatuko dira zozketan esleitutako jarduera baino lehentasunezko beste jardueraren bat eskatutako pertsonekin.

JARDUEREN ARAUDIA (Irakurri izena eman baino lehen)

- Jarduerak urriaren 1an hasiko dira eta maiatzaren 31n bukatu. Igeriketa ikastaroetan, lehenengo txanda urriaren 1tik urtarrilaren 31ra izango da; eta bigarrena otsailaren 1etik maiatzaren 31ra.
- Jarduerak Virgen Blanca ikastetxeak urritik maiatzera egindako egutegia jarraituko dute, helduentzako jarduerak izan ezik.
- PLAZEN ESLEIPENA:**
 - Jardueren plaza kopurua mugatua da (Spinning eta hirugarren adineko jarduerak izan ezik). Behin izen-ematea egina, zozketa informatizatua bidez Ugarrandia kirol instalazioetan abonatuak eta Uharten erroldatuak dauden pertsonen plazaak esleituko dira. Ondoren (ikus izen-emate epaia), beste zozketa bidez, erroldatuak ez dauden eta aurre-inskripzioa egin duzen pertsonen plazaak esleituko dira.
 - Kirol eskoletan (haurrentzako jarduerak) lehentasuna izanen dute iaz parte hartu eta maiatzean izen-ematea berretsi egin zuten ikasleek.
 - Igeriketa ikastaroetan, lehenengo txandan parte hartu duten abonatuak - bizilagunek bigarren txandarako (azken txanda) plaza gordeta izanen dute (talde eta ordutegi berdinan). Matrikula automatikoki berrituko zaie 2. txandarako talde eta ordutegi bereberan, izena eman beharrik gabe. Igeriketa ikastaroen 2. txandan izena eman nahi ez duten pertsonak (edo beste ordutegi eta talde batean nahi dutenak), Udalaren Kirol Zerbitzuaren bulegoetan **BAJA AGIRIA** bete beharko dute **ABENDUAREN 31KO 13:00AK BAINO LEHEN**.
 - Plazen esleipenak Udalaren kirol jardueretako izen-emateak arautzen dituzten ordenantzak zorrozki betez egingen dira (www.huarte.es Web orrian daude).**
- Udalaren Kirol Zerbitzuko jarduerak bakoitzarentzat argitaratutako gehienezko plaza kopurua aldatu ahaliko du, beti ere jarduera garatzeko eragozpen larririk eragiten ez baldin bada.
- Jarduera ez da aurrera emanean gutxieneko plaza kopurua (12 pertsona helduentzako jardueretan) betetzen ez bada. Otsailaren ere, bigarren txanda zehaztutako gutxieneko ikaste kopuruarekin hasi beharko da, horrela izena ezean jarduera bertan behera geratuko da.
- 2018ko abenduaren 31 baino lehen jardueretarako zehaztutako adina bete ez duten ikaslerik ez da onartuko.
- Kirol eskoletan 2018ko abenduaren 31 baino lehen 6 urte bete ez duten ikaslerik ez da onartuko.
- Taldeko kirol eskolak talde eraketaren menpe egonen dira, egunak eta ordutegiak alda daitekeelarik edo, gutxieneko kopurua bete ezean, bertan behera gelditu daitekeelarik. Partidetarako edo txapelketetarako taldeen osaketa (kideak eta kopurua) Kirol klubaren irizpideen arabera egingen da, beti ere Udalaren Kirol Zerbitzuko ezarritako parte hartze irizpideak errespetatuz.
- Taldeko kirol eskoletako maila txikietan (benjamin eta kimu), kirol elkarte eta Udalaren Kirol Zerbitzuaren iritziz, talde edo eskola mistoak (neska eta mutilak elkarrekin) sortu ahaliko dira.
- Irakasleak, Udalaren Kirol Zerbitzuaren baimenarekin, taldez (egunak eta ordutegiak) alda dezake neska-mutilen edota helduen bat mailarik ez bada, beti ere beste taldean lekurik badago.
- Udalaren Kirol Zerbitzuaren irizpidez, euskarazko edo gaztelaniarazko taldeak, horietako bat bete ezean, elebidun egin ahaliko dira, biak elkartzu eta talde bakarra sortuz.
- Udalaren Kirol eskolak haien egitura eta funtzionamendua arautzen dituen "Uharteko Udalaren Kirol eskolen araudiaren" bidez antolatzen dira. Araudia eskuragarri dago Udalaren Kirol Zerbitzuan zein www.huarte.es web orrian.
- Bigarren lauhilabetekorako burutzen ari zen jarduera utzi nahi duen pertsonak (solilik urritik maiatzera jardueretan, ez Igeriketa ikastaroetan), Kirol Zerbitzuan idatziz jakinarazi beharko du 2019ko urtarrilaren 30a baino lehen. Hala egingen ez balu, dagokion kuota kobratuko litzaiolke.**
- Udalaren Kirol Zerbitzuko ikastarotik kanpo utzi ahaliko ditu (dirua itzuli gabe) hilabete batean agertzen ez diren pertsonak, baldin eta Udalaren Kirol Zerbitzuaren bulegoetan ziurtagarria aurkezten ez badute (gazteentzako eta helduentzako jardueretan). Horrela aukera gehiago emanen zaie ekintza batean parte hartu nahi duten eta itxaron zerrenda dauden beste pertsonen.
- Kirol eskoletako entrenamenduko (partidak) betebeharrekoak dira, justifikatutako arrazoiengatik izan ezik. Hiru hilabetean horietako lauetara justifikaziorik gabe "EZ" joateak ikasle horren baja suposa lezake, itxaron zerrendan dagoen hurrengo ikasleari bidea emanez. Justifikaziorako arrazoiak dira gaixotasunekin, ikasketekin edo arrazoi familiarrekin erlazionatutakoak.
- Udalaren Kirol Zerbitzuko ordainketa ezagatik itzulitako ordainagiriei %5eko errekurua ezarriko die, eta ordaindu ezean Agentzi Exekutibora bideratuko ditu. Kirol Zerbitzuarekin zorraren bat duenak (errezioren bat itzulia) ezin izanen du kirol jarduerarik egin edo egiten duenarekin jarraitu.
- Behin izen-ematea egina ez da dirurik itzuliko, ez bada arazo larriagatik, eta beti ere ordezkoren bat baldin badago.**
- Gazteentzako nahiz helduentzako jardueretara laneko txandengatik ordutegi desberdinetan (jarduera bereberan) joan nahi duten pertsonak, eskaera bat aurkeztu beharko dute Udalaren Kirol Zerbitzuaren bulegoan, inskripzioa web bidez egin eta gero. Ordutegi osagarria izateko eskaera laneko egiaztagiarekin batera aurkeztu beharko da eta kontuan hartuko da, baldin eta lekurik badago.
- Ezinbestean eta gure esku ez dauden arrazoiengatik, uholdeak edo beste ustekabeko batzuk bezala, eteten diren jarduerak ez dira errekurperatuko ez eta ekonomikorik konpentsatuko.
- Jarduera hauetan izena eman duten pertsonen aurretik azterketa medikoa egitea gomendatzen diegu. Udalaren Kirol Zerbitzuko, egoki irizten bada, berretzat gordetzen du azterketa hori exijitzeko eskubidea.

INSTALAZIOAN:

- Kiroldegira sartzeko baxtela ekartzeko ezinbestekoa da.
- JARDUERA BATEAN INSKRIBATURIK EZ DAUDEN PERSONEK EZIN DUTE KIROL PISTARA SARTU (SOILIK KIROLARIK, EZ LAGUNTZAILEAK).
- KIROL PISTAREN BARRUTIK 2. ETA 3. ARETOETARA SARTZEKO, HORRETARAKO PRESTATUTAKO KORRIDOREA ERABILI BEHAR DA.
- Udalaren Kirol Zerbitzuko ez dituzten bere gain hartuko aretoetara prestatutako sarbidea ez errespetatzearen ondorioz gerta daitezkeen istripurik (baloikadak), Kirol instalazioetara soilik sar daitezke jarduerara inskribaturiko pertsonak (parte-hartzaileak, ez laguntzaileak).
- Instalazioa iristerakoan arduradunak talde bakoitzari aldagela bat egokituiko dio, eta erabiliko du bere jarduera amaitu eta 20 minutu pasa arte.

ASEGURUA

- Kirol ezbeharren bat izanez gero, medikuen sorospena norberaren Gizarte-segurantzaren kontura izanen da. Uharteko Udalaren Kirol Zerbitzuko ez du eragindako gastua bere gain hartuko.
- INFORMAZIO GEHIAGO UDALAREN KIROL ZERBITZUKO BULEGOETAN (astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara) Tel: 948-331901, deportes@huarte.es**

JARDUEREN PREZIOA

- Udalerrian erroldatuak jarduera ordaindu ahaliko dute 2017. urteko errenta aitortpenean agertzen diren diru-sarreraren arabera, eta horretarako sei tarte ezartzen dira: 5.000 euroko per kapita errenta baino txikiagoa, 5.001-8.000 euro tartekoa, 8.001-10.000 euro tartekoa, 10.001-15.000 euro tartekoa, 15.001-20.000 euro tartekoa eta 20.001 euro baino handiagoa. (Ikusi taulan tarte bakoitzari dagokion kuota).

PILATES							
	PCE<5.000€	PCE 5.001 -8.000€ artean	PCE 8.001 -10.000€ artean	PCE 10.001- 15.000€ artean	PCE 15.001- 20.000€ artean	PCE >20.001€	ERRENTA GABE
ABONATUA ERROLDATUA	84,50 €	153,50 €	190 €	209 €	230 €	253 €	253 €
ABONATUA EZ ERROLDATUA							253 €
ERROLDATUA EZ ABONATUA	112,50 €	204,50 €	253,50 €	279 €	306,50 €	337,50 €	337,50 €
EZ ERROLDA. EZ ABONATUA							432,50 €
TRX ESEKITA (45 minutu)							
	PCE<5.000€	PCE 5.001 -8.000€ artean	PCE 8.001 -10.000€ artean	PCE 10.001- 15.000€ artean	PCE 15.001- 20.000€ artean	PCE >20.001€	ERRENTA GABE
ABONATUA ERROLDATUA	62,50 €	113,50 €	140,50 €	154,50 €	170 €	187 €	187 €
ABONATUA EZ ERROLDATUA							187 €
ERROLDATUA EZ ABONATUA	83,00 €	151 €	187,50 €	206 €	226,50 €	249,50 €	249,50 €
EZ ERROLDA. EZ ABONATUA							319,50 €
SPINNING							
	PCE<5.000€	PCE 5.001 -8.000€ artean	PCE 8.001 -10.000€ artean	PCE 10.001- 15.000€ artean	PCE 15.001- 20.000€ artean	PCE >20.001€	ERRENTA GABE
ABONATUA ERROLDATUA	83 €	151 €	187 €	206 €	226,50 €	249 €	249 €
ABONATUA EZ ERROLDATUA							249 €
ERROLDATUA EZ ABONATUA	111 €	201,50 €	250 €	274,50 €	302 €	332,50 €	332,50 €
EZ ERROLDA. EZ ABONATUA							426 €
AQUAGYM JARDUERA (45 minutu)							
	PCE<5.000€	PCE 5.001 -8.000€ artean	PCE 8.001 -10.000€ artean	PCE 10.001- 15.000€ artean	PCE 15.001- 20.000€ artean	PCE >20.001€	ERRENTA GABE
ABONATUA ERROLDATUA	55,50 €	100,50 €	125 €	137,50 €	151 €	166 €	166 €
ABONATUA EZ ERROLDATUA							166 €
ERROLDATUA EZ ABONATUA	73 €	133 €	164,50 €	181 €	199 €	219 €	219 €
EZ ERROLDA. EZ ABONATUA							282,50 €
18 URTETIK BEHERAKO IGERIKETA (txanda bat)							
	PCE<5.000€	PCE 5.001 -8.000€ artean	PCE 8.001 -10.000€ artean	PCE 10.001- 15.000€ artean	PCE 15.001- 20.000€ artean	PCE >20.001€	ERRENTA GABE
ABONATUA ERROLDATUA	33 €	60 €	74,50 €	82 €	90 €	99 €	99 €
ABONATUA EZ ERROLDATUA							99 €
ERROLDATUA EZ ABONATUA	44,50 €	80,50 €	99,50 €	109,50 €	120,50 €	132,50 €	132,50 €
EZ ERROLDA. EZ ABONATUA							179,50 €
18 URTETIK GORAKO IGERIKETA (txanda bat)							
	PCE<5.000€	PCE 5.001 -8.000€ artean	PCE 8.001 -10.000€ artean	PCE 10.001- 15.000€ artean	PCE 15.001- 20.000€ artean	PCE >20.001€	ERRENTA GABE
ABONATUA ERROLDATUA	53 €	96,50 €	119,50 €	131,50 €	144,50 €	159 €	159 €
ABONATUA EZ ERROLDATUA							159 €
ERROLDATUA EZ ABONATUA	70,50 €	128 €	158,50 €	174,50 €	192 €	211 €	211 €
EZ ERROLDA. EZ ABONATUA							229 €
65 URTETIK GORAKO IGERIKETA (txanda bat)							
	PCE<5.000€	PCE 5.001 -8.000€ artean	PCE 8.001 -10.000€ artean	PCE 10.001- 15.000€ artean	PCE 15.001- 20.000€ artean	PCE >20.001€	ERRENTA GABE
ABONATUA ERROLDATUA	34,50 €	63 €	78 €	86 €	94,50 €	104 €	104 €
ABONATUA EZ ERROLDATUA							104 €
ERROLDATUA EZ ABONATUA	46,50 €	84,50 €	105 €	115,50 €	127 €	139,50 €	139,50 €
EZ ERROLDA. EZ ABONATUA							229 €

* Prezioak, akats tipogragikoak izan ezean

Gazteentzako (14 urtetik aurrera) eta helduentzako jarduerak

MANTENU SOINKETA (40 Plaza)

EGUNAK: ASTELEHEN, ASTEARTE ETA OSTEGUN

ORDUTEGIA: 9:15-10:15

LEKUA: ERABILERA ANITZETAKO ARETOA

GAP (IPURMASAIL, SABEL ETA HANKEN LANKETA) (40 Plaza)

EGUNAK: ASTEARTE ETA OSTEGUN

ORDUTEGIAK: 20:00-21:00

LEKUA: ERABILERA ANITZETAKO ARETOA

ARIKETA FISIKOA (55 URTETIK GORA) (35 Plaza)

EGUNAK: ASTELEHEN, ASTEAZKEN ETA OSTIRAL

ORDUTEGIA: 11:30-12:30 (astelehena eta asteazkena), 10:30-11:30 (ostirala)

LEKUA: ERABILERA ANITZETAKO ARETOA

SOINKETA TERAPEUTIKO LEUNA (55 URTETIK GORA) (20 Plaza)

EGUNAK: ASTELEHEN ETA ASTEAZKEN

ORDUTEGIA: 10:30-11:30

LEKUA: ERABILERA ANITZETAKO ARETOA

SOINKETA TERAPEUTIKOA - NEURRIZKOA (55 URTETIK GORA) (30 Plaza)

EGUNAK: ASTEARTE ETA OSTEGUN

ORDUTEGIA: 11:30-12:30

LEKUA: ERABILERA ANITZETAKO ARETOA

YOGA (16 Plaza)

EGUNAK: ASTEARTE ETA OSTEGUN

ORDUTEGIAK: 18:30-20:00

LEKUA: UHARTEKO ESKOLA ZAHARRA EDO KIROLDEGIA

Erabilera anitzetako aretoan itxita dauden egun lanegunetan klaseak bertan behera geratuko dira. Horiek ekaineko hilabetean berreskuratuko dira.

PILATES (15 Plaza/taldeko)

GOIZEKO TALDEA: ASTELEHEN ETA ASTEAZKEN 10:20-11:20

ARRATSALDEKO TALDEAK: ASTEARTE ETA OSTEGUN 18:00-19:00

ASTEARTE ETA OSTEGUN 19:00-20:00

LEKUA: 2. ARETOA

AQUAGYM (20 Plaza/taldeko)

GOIZEKO TALDEA:ASTEAZKEN ETA OSTIRAL 9:30- 10:15

ARRATSALDEKO TALDEA:ASTELEHEN ETA ASTEAZKEN 19:45-20:30

LEKUA: IKAS-IGERILEKUAN

ZUMBA (40 Plaza)

TALDEAK	LEKUA
ASTEARTE ETA OSTEGUN 10:30-11:30	1. ARETOA
ASTEARTE ETA OSTEGUN 19:00-20:00	
ASTELEHEN ETA ASTEAZKEN 19:00-20:00	

EGOKITZAPEN FISIKO OROKORRA (20 Plaza)

Gorputza bere osotasunean lantzen duen ariketa multzoa, gorputza lantzeko jarduera desberdinak konbinatuz mota guztietako elementuak lagun (gomak, step-a, barrak...). Neurrizko intentsitatea.

EGUNAK: ASTELEHEN ETA ASTEAZKEN

ORDUTEGIA: 20:00-21:00

LEKUA: 2. ARETOA

ENTRENAMENDU FUNTZIONALA (30 Plaza)

Jarduera hau zuzendua dago:

- **Jarduera fisikoa egin nahi duten pertsoneri, eskaera maila ertain-altuarekin (prestakuntza fisikoaren antzeko jarduera baina espezifikotasun handiagoarekin)**
- **Haien ohiko entrenamendua osatu nahi duten kirolarientzat gomendagarria**

EGUNAK: ASTELEHEN ETA ASTEAZKEN

ORDUTEGIA: 20:00-21:00

LEKUA: ERABILERA ANITZEKO ARETOA

SPINNING

ORDUTEGIAK: Astelehen 20:15, Astearte 9:30 eta 19:15, Ostegun 9:30, 19:15.

Aste bakoitzean bi saio edo gehiagotara joan ahal izango zara lehen aipatutako ordutegietan (jarduera honen funtzionamenduri buruz galdetu udalaren kirol zerbitzuko bulegoetan).

Ordutegi hauek bermatuko dira baldin eta 40 pertsona izena ematen badute.

Eskainitako orduak handitu edo murriztu ahalko dira izena eman dute pertsona kopuruaren arabera.

PLAZAK: mugarik gabe.

Entrenamendurako sistema berria. Indarra lantzen da norberaren pisua erabiliz, ariketak esekita burutzen direlako. Jarduera honekin malgutasuna, oreka eta gorputzaren erdialdeko egonkortasuna hobetzen da.

EGUERDIKO TALDEA	ARRATSALDEKO TALDEA
EGUNAK: ASTEARTE ETA OSTEGUN	EGUNAK: ASTELEHENA ETA ASTEAZKENA
ORDUTEGIAK: 15:00-15:45	ORDUTEGIAK: 19:45-20:30
LEKUA: 3. ARETOA	LEKUA: 3. ARETOA

TENIS ETA PADEL JARDUEREI BURUZKO INFORMAZIO OHARRA

Nahiz eta tenis eta padel pisten eraikuntzan atzerapenik egon, "Ipartenis" enpresa esleipendunak konfirmatu digu pistak hurrengo denboraldirako martxan egonen direla eta adin guztietarako tenis eta padel kirol jarduera egitarau zabal bat eskainiko dela. Aipatu egitarau hau behar den bezala iragarriko da Uharteko hiritarren artean, abonatuak eta erroldatuak lehentasuna izan dezaten gainerako erabiltzaileen aurrean.

Haurrentzako jarduerak (Kirol eskolak)

ERRITMO SOINKETA

ADINA/TALDEA	EGUNAK	ORDUTEGIA	LEKUA	PLAZAK
OINARRIZKO 6-7 URTE (2011-12)	ASTEAZKEN OSTIRAL	16:00-17:00 17:00-18:00	KIROL PISTA 1. ARETOA	10 Plaza
OINARRIZKO 8-9 URTE (2009-10)	ASTEAZKEN ETA OSTIRAL	18:00-19:00	KIROL PISTA 1. ARETOA	7 Plaza
TALDE AURRERATUA (2008 eta aurrekoak)	ASTEAZKEN OSTIRAL	17:00-18:00 19:00-20:00	KIROL PISTA 1. ARETOA	7 Plaza
TXAPELKETA TALDEA	ASTEAZKEN OSTIRAL	17:00-18:00 20:00-21:00	KIROL PISTA	-----

KIROLAURREKO JOLASAK

ADINA/TALDEA	EGUNAK	ORDUTEGIA	LEKUA	PLAZAK
GAZTELANIAZ (2013 ETA 2014 URTEETAN JAIOKAK)	ASTELEHEN ETA ASTEAZKEN	18:00-19:00	2. ARETOA	20 Plaza
EUSKARAZ (2013 ETA 2014 URTEETAN JAIOKAK)	ASTELEHEN ETA ASTEAZKEN	17:00-18:00	2. ARETOA	20 Plaza

KARATE

TALDEA	EGUNAK	ORDUTEGIA	MAILA	PLAZAK
HASTAPEN MAILA GAZTELANIAZ	ASTELEHEN- ASTEAZKEN	18:00-19:00	<G. LARANJA	10 Plaza
HASTAPEN MAILA EUSKARAZ	ASTEARTE ETA OSTEGUN	17:00-18:00	<G. LARANJA	10 Plaza
ERDIKO MAILA	ASTEARTE ETA OSTEGUN	18:00-19:00	G. LARANJA eta LARANJA-BERDEA	2 Plaza
MAILA AURRERATUKO 1 TALDEA	ASTELEHEN ETA ASTEAZKEN	19:00-20:00	G. LARANJA BERDEA, BERDEA eta BERDEA-URDINA	3 Plaza
MAILA AURRERATUKO 2 TALDEA	ASTELEHEN ETA ASTEAZKEN	17:00-18:00	>G. BERDE-URDINA	3 Plaza

*Taldeak mailaren eta adinaren arabera egingo dira entrenatzailearen irizpidez.

GURPIL GAINEKO KIROL ANITZAK: IZOTZ GAINEKO ETA LINEAKO IRRISTATZEA, HOCKEYA, ARTISTIKOA

Irristatze modalitate guztiak (linea eta izotz-gainekoa) nahasten dituen jarduera, kirol anitza eta garapen integrala lortzeko.

ADINA/TALDEA	EGUNAK	ORDUTEGIA	LEKUA	PLAZAK
6-7 URTE (2011-12 jaiotakoak)	ASTEARTE -OSTEGUN	17:00-18:00	EGUN BAT UHARTEKO IZOTZ JAUREGIAN ETA BESTE BAT KIROLDEGIKO FRONTOIAN	7 Plaza
8-14 URTE (2004-10 jaiotakoak)	ASTEARTE -OSTEGUN	17:00-18:00	EGUN BAT UHARTEKO IZOTZ JAUREGIAN ETA BESTE BAT KIROLDEGIKO FRONTOIAN	9 Plaza

Ikastaroaren hasieran linea eta izotz-gaineko taldeak eta egutegia zehaztuko dira.

Inskripzioaren arabera taldeen konposizioa (adinak) aldatu ahalgo da.

BATUDANZZ (dantza modernoa, funky, batuka, gorputz adierazpena)

ADINA/ TALDEA	EGUNAK	ORDUTEGIA	LEKUA	PLAZAK
6-7 URTE (2011-12 jaiotakoak)	ASTELEHEN ETA ASTEAZKEN	18:00-19:00	1. edo 3. ARETOA	12 Plaza
8 URTE (2010 jaiotakoak)	ASTELEHEN ETA ASTEAZKEN	18:00-19:00	1. edo 3. ARETOA	7 Plaza
9 URTE (2009 jaiotakoak)	ASTELEHEN ETA ASTEAZKEN	19:00-20:00	2. ARETOA	6 Plaza
10-14 URTE (2004-08 jaiotakoak)	ASTELEHEN ETA ASTEAZKEN	17:00-18:00	1. ARETOA	Beteta

ESKUBALOIA (GIZONENTZAKO ETA EMAKUMEENTZAKO)

ADINA/TALDEA	EGUNAK	ORDUTEGIA	LEKUA	PLAZAK
AURRE KIMU (2011-2012 jaiotakoak)	ASTELEHEN-ASTEAZKEN	17:00-18:00	KIROL PISTA FRONTOIA	11 Plaza
AURRE KIMU (2009-2010 jaiotakoak)	ASTELEHEN -OSTEGUN	18:00-19:00	KIROL PISTA FRONTOIA	2 Plaza
EMAKUMEZKO KIMU (2007-2008 jaiotakoak)	ASTEARTEA-OSTEGUN	18:00-19:00	FRONTOIA KIROL PISTA	Beteta
GIZONEZKO KIMU (2007-2008 jaiotakoak)	ASTEARTEA OSTEGUN	18:00-19:00 17:00-18:00	FRONTOIA KIROL PISTA	5 Plaza
GIZONEZKO HAUR (2005-2006 jaiotakoak)	ASTELEHEN-ASTEAZKEN	18:00-19:00	ESKOLAKO PAT. KIROL PISTA	Beteta
EMAKUMEZKO HAUR A (2005 eta 2006 jaiotakoak)	ASTELEHEN-ASTEAZKEN	19:00-20:00	KIROL PISTA ESKOLAKO PAT	Beteta
EMAKUMEZKO HAUR B (2005 eta 2006 jaiotakoak)	ASTELEHEN ASTEAZKEN	18:00-19:00 19:00-20:00	ESKOLAKO PAT. KIROL PISTA	Beteta
GIZONEZKO KADETEAK (2003 eta 2004 jaiotakoak)	ASTELEHEN, ASTEARTE ETA OSTEGUN	19:00-20:00	ESKOLAKO PAT. KIROL PISTA KIROL PISTA	Beteta
EMAKUMEZKO KADETEAK (2003 eta 2004 jaiotakoak)	ASTELEHEN, ASTEARTE ETA OSTEGUN	19:00-20:00	ESKOLAKO PAT. KIROL PISTA KIROL PISTA	Beteta

(*) Ostegunetan, 18:00-20:00, eskolako patioan: klubak kudeatutako ordutegia, alebin baino goragoko mailetako taldeen entrenamenduen osagarri moduan.

ESKU PILOTA

MAILA	EGUNAK	ORDUTEGIA	LEKUA	PLAZAK
OINARRIZKO MAILA 1-2-3 (2008-2012 jaiotakoak)	ASTELEHEN ETA ASTEAZKEN	(H)	FRONTOI TOKI ALAI	13 Plaza (*)
MAILA AURRERATU 1	ASTEARTE ETA OSTEGUN	17:00-18:00	FRONTOI TOKI ALAI	2 Plaza (*)
MAILA AURRERATU 2	ASTEARTE ETA OSTEGUN	18:00-19:00	FRONTOI TOKI ALAI	1 Plaza (*)

(*) Adinak orientagarriak dira. Taldeak mailaren arabera egingo dira entrenadorearen irizpidez. Maila-proba bat egin ahaliko da.

Pelotazale elkartetik eta Kirol Zerbitzutik neskak izen- ematera animatzen dugu.

(H) HASTAPEN ORDUTEGIAK:

17:00-20:00 ordutegi tartean kokatuko dira eta, beranduenez, azken entrenamendua 20:00etan bukatuko da (handienek azken orduetan entrenatuko dute).

*Entrenamendu ordutegi eta taldeak inskripzioa amaituta ezarriko dira, izena eman duten pertsonen kopuruaren arabera.

ATLETISMOA ETA TRIATLOI ESKOLA BATERATUA

ADINA/TALDEA	EGUNAK	ORDUTEGIA	LEKUA	PLAZAK
6-7 URTE (2011-12 jaiotakoak)	ASTEAZKEN-OSTIRAL	17:10-18:00	IGERILEKU/FRONT.	18 Plaza
8-9 URTE (2009-10 jaiotakoak)	ASTEAZKEN-OSTIRAL	18:00-19:00	IGERILEKU/FRONT	3 Plaza
10-14 URTE (2004-08 jaiotakoak)	ASTEAZKEN-OSTIRAL	19:00-20:00	IGERILEKU/FRONT	Beteta

ATLETISMOAN ESPEZIALIZATU NAHI DUTEN 11-16 URTE ARTEKO GAZTETXOEK , BURLATAKO INSTALAZIOETARA PASA BEHARKO DIRA ETA ENTRENAMENDU ORDUTEGIAK ONDORENGOAK IZANGO DIRA: ASTELEHEN, ASTEARTE ETA OSTEGUN, 18:00-19:00 . INSKRIPZIOAK HIRU-HERRI ELKARTEAN EGINGO DIRA; BURLATAKO ATLETISMO PISTAK (ASTELEHEN, ASTEARTE ETA OSTEGUNETAN 18:00-20:00) IRAILAREN 1ETIK AURRERA EDO WEB ORRIAN

<http://hiru-herri.jimdo.com/escuela/admisi%C3%B3n/>

FUTBOLA

ADINA/TALDEA	EGUNAK	ORDUTEGIA	LEKUA	PLAZAK
6 URTE (2012n jaiotakoak)	ASTEARTE -OSTIRAL	18:00-19:00	KIROL PISTA	24 Plaza
7 URTE D (2011ean jaiotakoak)	ASTEARTE -OSTIRAL	17:00-18:00	KIROL PISTA	Beteta
7 URTE C (2011ean jaiotakoak)	ASTEARTE-OSTIRAL	17:00-18:00	KIROL PISTA	2 Plaza
8 URTE TXIKI B (2010an jaiotakoak)	ASTEARTE OSTIRAL	19:00-20:00	ESKOLAKO PAT. KIROL PISTA	1 Plaza
8 URTE TXIKI A (2010an jaiotakoak)	ASTEARTE OSTIRAL	18:00-19:00 19:00-20:00	ESKOLAKO PAT. KIROL PISTA	1 Plaza
EMAKUMEZKO ARETO FUTBOLA (TALDE BERRIA) (2010-2012 jaiot.)	ASTELEHEN-ASTEAZKEN	18:00-19:00	FRONTOIAN	12 Plaza
FUTBOL 8 BENJAMIN (2009an jaiotakoak)	ASTELEHEN-ASTEAZKEN	17:45 - 19:00	BELARREKO FZ	1 Plaza
FUTBOL 8 KIMU D (2008an jaiotakoak)	ASTELEHEN -ASTEAZKEN	17:45 - 19:00	BELARREKO FZ	Beteta
FUTBOL 8 KIMU C (2008an jaiotakoak)	ASTELEHEN -ASTEAZKEN	17:45 - 19:00	BELARREKO FZ	Beteta
FUTBOL 8 KIMU B (2007an jaiotakoak)	ASTEARTE -OSTEGUN	16:45 - 18:00	BELARREKO FZ	Beteta
FUTBOL 8 KIMU A (2007an jaiotakoak)	ASTEARTE -OSTEGUN	16:45 - 18:00	BELARREKO FZ	Beteta
EMAKUMEZKO FUTBOL 8 (2007-2010an jaiotakoak)	ASTEAZKEN OSTIRAL	16:30-17:45 17:45-19:00	BELARREKO FZ	8 Plaza
EMAKUMEZKO FUTBOL 11 (2003-2006an jaiotakoak)	ASTEAZKEN ETA OSTIRAL	16:30-17:45	BELARREKO FZ	10 Plaza
HAUR MAILA (2005-2006ean jaiotakoak)	Ekainaren bukaeran ordutegiak zehaztuko dira taldeen diseinuaren arabera		BELARREKO FZ	11 Plaza

TENIS ETA PADEL JARDUEREI BURUZKO INFORMAZIO OHARRA

Nahiz eta tenis eta padel pisten eraikuntzan atzerapenik egon, "Ipartenis" enpresa esleipendunak konfirmatu digu pistak hurrengo denboraldirako martxan egonen direla eta adin guztietarako tenis eta padel kirol jarduera egitarau zabal bat eskainiko dela. Aipatu egitarau hau behar den bezala iragarriko da Uharteko hiritarren artean, abonatuak eta erroldatuak lehentasuna izan dezaten gainerako erabiltzaileen aurrean.

IGERIKETA IKASTAROAK

1. txanda: urriaren 1tik urtarrilaren 31 arte

HELDUENTZAKO IGERIKETA IKASTAROA

ADINA: 15 urtetik aurrera (2003an edo lehenago jaiotakoak)

HASTAPEN MAILA (10 Plaza)

Astelehen eta asteazken 19:00etatik 19:45era.

MAILA AURRERATUA (13 Plaza)

Astearte eta ostegun 19:30etik 20:15era

IGERIKETA IKASTARO LAGUNDUA

(Heldu batek parte hartu behar du umetxoarekin)

IGERIKETA LAGUNDUA. 2017an jaiotakoak (13 Plaza)

Astelehen eta asteazken 17:00etatik 17:30era.

IGERIKETA LAGUNDUA 2016ean jaiotakoak (13 Plaza/taldeko)

Astelehen eta asteazken 17:30etik 18:00etara.

2015. URTEAN JAIOTAKO HAURRENTZAKO IKASTAROAK

(8 Plaza/taldeko)

EUSKARAZKOA	GAZTELANIAZKOA	ELEBIDUNA
Astearte eta ostegun 17:00-17:30	Astearte eta ostegun 17:30-18:00	Astearte eta ostegun 18:00-18:30
Astelehen eta asteazken 18:00-18:30	Astelehen eta asteazken 18:30-19:00	

2013an ETA 2014an JAIOTAKO HAURRENTZAKO HASTAPEN IKASTAROAK

HASTAPEN MAILA: uretan kontrolatzen du materialarekin / ez du konfiantza osoa, ez da askatzen (8 Plaza/taldeko)		
<u>EUSKARAZKOA</u>	<u>GAZTELANIAZKOA</u>	<u>ELEBIDUNA</u>
Astearte eta ostegun 17:00-17:30	Astearte eta ostegun - 17:30-18:00	Astelehen eta asteazken 17:30-18:00
Astearte eta ostegun 18:30-19:00	Astearte eta ostegun 18:00-18:30	

2013an ETA 2014an JAIOTAKO HAURRENTZAKO MAILA AURRERATUKO IKASTAROAK

MAILA AURRERATUA: uretan kontrolatzen du materialik gabe (askatzen da) / konfiantza du, askatzen da (10 Plaza/taldeko)		
<u>EUSKARAZKOA</u>	<u>GAZTELANIAZKOA</u>	<u>ELEBIDUNA</u>
Astearte eta ostegun 17:00-17:30	Astearte eta ostegun 17:30-18:00	Astelehen eta asteazken 17:00-17:30
Astearte eta ostegun 18:30-19:00	Astearte eta ostegun 18:00-18:30	

2011ean ETA 2012n JAIOTAKO HAURRENTZAKO IKASTAROAK

Askatzen da, igeri egiten badaki baina estiloa hobetu behar du (10 Plaza/taldeko)		
<u>EUSKARAZKOA</u>	<u>GAZTELANIAZKOA</u>	<u>ELEBIDUNA</u>
Astearte eta ostegun 19:00-19:30	Astearte eta ostegun 19:00-19:30	Astelehen eta ostiral 17:30-18:00

2004 ETA 2010 URTE ARTEAN JAIOTAKO HAURRENTZAKO **IKASTAROAK**

Igeri egiten badaki baina estiloa hobetu behar du (12 Plaza/Taldea)

EUSKARAZKOA

Astelehen eta ostiral
18:00-18:45

GAZTELANIAZKOA

Astelehen eta ostiral
18:45-19:30

IGERI EGITEN EZ DAKITEN UME HANDIAGOENTZAKO ***IGERIKETA (2012 EDO LEHENAGO JAIOTAKOAK)***

(10 Plaza/taldeko)

Astelehen eta asteazken 18:00 – 18:30

IKASTAROAK IGERILEKUETAN KOKATZEKO IRIZPIDEAK

- *Igeriketa lagunduko (umetxoak), helduen hastapeneko, 3 urteko haurren igeriketa eta aquagym-eko klaseak ikas-igerilekuan emango dira.*
- *4-5 urteko haurren hastapeneko klaseak ikas-igerilekuan edo igerileku handian eman ahalko dira, Udalaren Kirol Zerbitzuaren irizpidez.*
- *Igeri egiten ez dakiten ume handietako igeriketa, 4-5 urte (aurreratua), 6-7 urte, 8-14 urte eta helduen aurreratua igerileku handian emanen dira.*